

# Europako Itun Konstituzionalak eskubide gabe utzi ditu hizkuntza-komunitate ugari

**Paul Bilbao Sarria**

**Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria**

Artikulu honetan Europar Batasunak Erromako Itunetik hizkuntza gutxituekiko izan duen jarrera azaldu nahi izan da. Horrela, Europako Itun Konstituzionalean hizkuntzei zein hizkuntza-eskubideei eskaini zaien lekua ere aztertu da. Itunaren hiru ataletan hizkuntzen inguruan agertzen diren artikuluen azterketa eta balorazioa agertu nahi izan da, bai eta horrek hizkuntza ofiziala ez den hizkuntzetako hiztunengan duen eragina ere.

Maastricht, Niza, Amsterdam... guztiek eredu berari jarraitu izan diote. Are gehiago, duintasunean, askatasunean, berdintasunean, elkartasunean, herritartasunean eta justizian oinarritutako Batasunaren oinarritzko eskubideen gutunak ere ikusgabe bihurtzen gaitu. Hartara artikulu honetan Europar Batasunak estatu-hizkuntzak ez diren besteekiko duen axolagabekeria erakutsi besterik ez dugu nahi izan, eskubide gabe utzi baikaitu, gu eta gu bezalakoak.

The aim of this article is to explain the attitude of the European Union from the Treaty of Rome as far as the minoritised languages. We have also analysed the treatment given by the European Constitutional to those languages and to the language rights. Finally we have analysed all articles of the treaty related to the language, and its influence in non-official languages speakers. We have concluded that they all have been still the same model.

Even the Charter of Fundamental Rights based on the dignity, justice, freedom, equality, solidarity and citizens' rights shows indifference to the languages that are not languages of State. Therefore, throughout this article we show that in the construction of that new Europe they have left us, and those like us, without rights.

## 1. Europar Batasuna eta hizkuntzak

Ez da erraza izaten Europan zenbat hizkuntza bizi diren adieraztea, ez eta Europan zein hizkuntza mintzo diren ere. Are gehiago, hizkuntzen zerrenda egitean edota sailkatzean hainbat eredu agertzen zaizkigu.

Iturri batzuen arabera, Europar Batasunean 125 hizkuntzatik gora erabiltzen dira, horietako asko azken hamarkadetan izandako migrazio-mugimenduen ondorioz sartuak. Berezko hizkuntza-komunitateei dagokienez, 60 inguru direla esan ohi da. 2004ko maiatzean Europar Batasunean sartu ziren Estatuak kontuan hartu barik, 32 hizkuntza-komunitate gutxiagotu zegoela adierazi zuen Euromosaic azterketak berak (yidish eta rom komunitateak kontuan hartu barik). Beste azterketa batzuek, aldiz, Bartzelonako hirian 200 hizkuntzatik gora mintzo direla azaldu eta frogatzen dute.

Hala ere, Itun Konstituzionalak 21 hizkuntzari besterik ez die aitortzen konstituzio-hizkuntzaren izaera eta 1/1958 erregelamenduaren arabera hoguei dira Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak, irlandarak ez baitu status ofizialik. Europar Batasuna 25 estatuk osatu arren, estatu batzuetako hizkuntza ofizialak errepikatu egiten dira, eta, beraz, hizkuntza ofizial gutxiago dago estatuak baino:

- Belgikan frantsesa eta nederlandera dira hizkuntza ofizialak
- Zipren grekoa eta turkiera dira hizkuntza ofizialak

Ezaugarri horiek kontuan harturik, luxenburgerak eta gaelikoak hizkuntza ofizialak izan beharko luketela ondoriozta genezake, baina aurrerago azalduko dugun bezala, Europako Elkarte Ekonomikoaren sorreratik bertatik hizkuntza horiei ez zitzaien status hori aitortu.

Berezko 60 hizkuntza-komunitate eta 20 estatu, estatu elebakarrik ez dago, orduan nola kudeatzen da aniztasun hori?

Europar Batasuneko estatuak aukera bat baino gehiago jorratu dituzte estatu barneko hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko, hona hemen eredu nagusiak:

- **Legez elebakarrak diren estatuak:** *Frantzia*
- **Hizkuntzak eremu geografikoka onartzen dituzten estatuak:** *Espainia*
- **Federazio linguistikoak:** *Belgika*
- **Estatu eleaniztunak:** *Finlandia*

## 2. Hizkuntza-irizpideak Europar Batasunaren eraikuntzan

Europar Batasunaren eraikuntzaren azken edo lehen urratsa izanen da Itun Konstituzionala. Hala ere, komenigarria litzateke ikustea orain arteko ibilbide horretan zein izan den hizkuntzaren inguruan aplikatu den politika, Itun Konstituzionalak agertzen duenarekin erkatzeko.

Europar Batasunaren sorreraren aitzindari dugu Europako Ekonomi Elkartea eta hura sortu zenetik Itun Konstituzionala paratu arte egondako itun garrantzitsu batzuk ekarri beharko genituzke gogora:

- Erromako Ituna
- Europako Akta Bakarra
- Maastricht-eko Ituna
- Amsterdamgo Ituna
- Nizako Ituna

Horietan guztietan hizkuntzaren inguruko aipuak biltzen dira, ez hizkuntza-eskubideen eremuan, bai, ordea, erakunde sortu berriaren hizkuntza-irizpideei buruzkoa.

Erromako Itunaren sinatzaileak Alemaniako Errepublika Federala, Belgika, Frantzia, Italia, Luxenburgoko eta Herbehereak izan ziren 1957ko martxoaren 25ean. Hori izan zen Europar Batasunaren eraketan aitzindaria, eta horri aldaketak egiteko, bai eta osatzeko ere, idatzi eta berretsi zen Europako Akta Bakarra. Horren ostean, Europar Batasuna eratzeko Maastricht-eko Ituna prestatu zuten eta, azkenik, Amsterdamgo zein Nizako Itunen bidez aldaketak egin zituzten, bai eta Europar Batasuneko erakunde berriak zehaztu ere.

Horietan guztietan hizkuntzaren gaia modu berean agertzen da, alegia, ez da ofizialtasunaren inguruko aipurik egiten, eta une oro itun horien bertsio ofizialak izango dira erreferentzia, alegia, zein hizkuntzatan idatzita egon, hizkuntza horretan zuzentzeko eskubidea aitortu zaie herritarrei.

Gainera, aipatu Itunek Europar Kontseiluaren esku uzten dute hizkuntza-erregimenen gaia, eta Europar Kontseiluak araudi bakarria prestatu zuen 1958an. Hartara, araudi horretan hizkuntza ofizialen statusa esleitu zien orduan EEE eratzen zuten estatu sinatzaileen hizkuntza ofizialei. Horren ostean, estatuak erantsi ahala, horien hizkuntza ofizialak txertatu egin dira aipatu araudian.

Dokumentu guztien azterketa sakona saihestearren, Antoni Milianek erabiltzen duen definizioa balia genezake itun horiek guztiek agertzen dituzten hizkuntza-irizpideak zehazteko:

Totes les llengües que tenen un estat de llengua oficial en el conjunt del territori d'un estat membre, o al si de les institucions central d'un estat membre, sense compartir-lo amb una altra llengua adquireixen la condició de llengua oficial i de treball de les institucions comunitàries.

Hala ere, definizio horrek badu nolabaiteko modulazioa, izan ere, estatu bateko lurralde osoan hizkuntza ofizial bat baino gehiago dagoenean, eta horietakoren bat aldi berean beste estatu bateko hizkuntza ofiziala bada, kasu horretan, beste hizkuntzak ez du ofizialtasunik izango. Hartara, luxenburgera eta gaelikoa ez dira hizkuntza ofizialak eta lan-hizkuntzak, ingelesa, frantsesa eta alemana beste estatu batzuetako hizkuntza ofizialak direlako.

Hori izan da Erromako Itunetik gaur egungo Itun Konstituzionala bitartean erabili izan den irizpidea, salbuespen batekin, alegia, berrikuntza edo aldaketa bat dakar Itun Konstituzionalak: malteraren kasua. Maltan bi hizkuntza dira ofizial, eta horietako bat Erresuma Batuko hizkuntza ofiziala ere bada, hortaz, malterak ez luke izan beharko izaera ofiziala. Hala ere, ez da hori gertatu, eta malterari estatu-hizkuntzen status bera esleitu zaio.

Egun 20 hizkuntza ofizial egotea segurtasun juridikoaren publizitatearen printzipioek eraginda da. Izan ere, hizkuntza ofizialak murriztuz gero, estatuak itzuli beharko lituzkete herritarrei begira argitaratutako ebazpen eta akta guztiak, eta horrek zuzenbide komunitarioaren arauak aldatzeko arriskua lekarke, itzulpenen interpretazioen ondorioz. Gainera, herritarrek zailtasunak izango lituzkete ezagutzen ez duten hizkuntza batean jo beharko balute Europar Batasuneko erakundeetara.

### **3. Itun Kontstituzionalaren azterketa**

Arestian esan bezala, Itun Kontstituzionala aurretik paratutako zenbait testutan oinarritutako dokumentua dugu, Maastricht-eko Itunetik abiatuta Amsterdam eta Nizako Itunekin jarraiturik.

Itun Kontstituzionalak hiru zati nagusi ditu:

#### **I. ZATIA**

Batasunaren definizioa eta helburuak, eskumenak, erakundeak, organoak eta abarrekoak arautzen ditu.

#### **II. ZATIA**

Batasunaren oinarritzko eskubideen gutuna, sei ardatz nagusitan antolatua: duintasuna, askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, herritartasuna eta justizia.

#### **III. ZATIA**

Batasunaren politikak eta funtzionamendua arautzen ditu: Barne politikak eta ekintzak, ekonomiari eta diruari buruzko politika, beste arlo batzuetako politikak, askatasuna eta segurtasuna, bai eta Batasunaren eragin- edota erabaki-ahalmenak ere, atzerri-ekintza, merkataritza-politika, nazioarteko akordioak, eta abar.

Hala ere azterketa xehearekin hasi aurretik bi elementu izan behar dugu kontuan. Batetik, Itun Kontstituzionalak saihestu egin duela hizkuntza ofiziala terminoa erabiltzea, horrexegatik, Itun Kontstituzionalaren hizkuntzak agertzen da une oro. Bestetik, Itun Kontstituzionalean zerrendatutako hizkuntzak Europar Batasuneko erakundeetako hizkuntza-erregimena zehazteko erabiltzen direla.

Horren ondorioz, Europar Batasuneko 1958ko 1. araudiak (hizkuntza-araudia zehazten duenak) hizkuntza ofizialak zerrendatzen ditu eta bertan ofizialtasuna jaso duten hizkuntzak erabili ahal izango dira Europar Batasuneko beste erakundeetan: Kontseiluan, Justizia Auzitegian, Parlamentuan, Banku Zentralean, Kontuen Auzitegian eta abarretan. Izan ere, aipatu erakunde horietan hizkuntzaren erabilera arautzean ofizialak diren hizkuntzak besterik ez dituzte jasotzen.

#### **3.1. I. zatia. Batasunaren definizioa**

##### ***I-2. artikulua***

##### **BATASUNAREN BALIOAK**

Gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barne, ditu

Batasunak oinarrizko balio. Batasuneko estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia eta elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan.

## **Iruzkina**

Balioen artean gutxiengoetako pertsonen eskubideak agertzen ditu, baina ez du zehazten zertaz ari den *gutxiengo* hitza aipatzen duenean. Ikuspegi teoriko batetik abiatuta, gutxiengoa banakoen talde bat izendatzeko erabiltzen da, eta banako horiek ezaugarri berezi batekin bat egiten dute edota ezaugarri bat partekatzen dute. Halaber, erreferentziarako erabiltzen den eremuan dagoen pertsona kopuruaren erdia baino gutxiago dira. Beraz, ikuspegi kuantitatiboari lotutako definizioa da. Definizio horretatik abiatuta gutxiengoak hainbat ezaugarri batzen dituzten pertsonen era ditzakete: arraza, joera sexuala...

Ondorioz, gutxiengoetako pertsonen eskubideez ari denean ez dakigu zein gutxiengoez ari den, ez baitakigu zein den gutxiengoak definitzeko erabiltzen duen erreferentzia. Gainera, definizio horiek ez horrek gutxiengoaren arteko desoreka handiak sor litzake. Har dezagun adibide gisa katalanaren hiztunak eta malterarenak. Ikuspegi numerikoari erreparatu gero, zein da gutxiengoak?

### ***I-3. artikulua***

#### **BATASUNAREN HELBURUAK**

3. Batasunak bere kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuko du eta Europaren kultura-ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du.

4. Munduko gainerakoekiko harremanetan Batasunak bere balioak eta interesak indartu eta sustatuko ditu. Bakea, segurtasuna, Lurraren garapen iraunkorra, herrien arteko elkartasuna eta errespetua, merkataritza aske eta zuzena, pobretasuna ezabatzea eta giza eskubideak babestea —batez ere haurren eskubideak— nazioarteko zuzenbidea zorrotz bete eta garatzea, eta, bereziki Nazio Batuen Gutunaren errespetua bultzatuko ditu.

Aipatu behar dugu hizkuntza-aniztasuna errespetatzeko aipua ez zela aurreikusitako hasierako bertsioan. Aitzitik, EBLULk eta Eskualdeetako Batzordeak hainbat proposamen egin zuten hizkuntza-eskubide subjektiboak aitortzeko, hizkuntza gutxiagoetako kideei eskubide kolektiboak aitortzeko eta abar. Proposamen horiek guztiak errefusatu egin zituzten, hizkuntza-aniztasuna errespetatzearren ingurukoa salbu.

Hortaz, horixe da Itun Konstituzionalak Europar Batasunaren eraikuntzan izan diren beste itunei begira dakarren berrikuntzetatik bai, alegia, hizkuntza-aniztasunaren errespetua.

Asko eta luze idatzi da Itun Konstituzionalak jasotzen duen hizkuntza-aniztasunaren inguruan. Printzipioz, Itun Konstituzionalak berak jasotzen du estatuak direla Europar Batasuneko subjektuak, hortaz, kultura- eta hizkuntza-aniztasunaz ari

denean subjektu horien araberako aniztasunaz ari dela ondoriozta dezakegu. Uler liteke Itun Konstituzionaleko esaldi horrek behartu beharko lituzkeela estatuak barneko hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna bermatzen, baina ez da horrelakorik ageri. Estatuei ez zaie interesatzen hizkuntz gutxiagotuen inguruko auziak Europak arautzea; izan ere, horrek mehatxua eragin lezake estatuaren kohesioan. Egia esan, estatu gehienek ez dute nahi Europar Batasunak barne hizkuntza-politikaz ezer arautzerik, horietako askok hizkuntz gutxiagotu askoren aurkako praktika asimilatzaileei ekin baitiete. Euskarari dagokionez Ipar Euskal Herria genuke kasurik aipagarriena. Nola uler liteke Europako aniztasunean Baionako hizkuntza-aniztasuna kontuan izatea, eta Frantziako Estatuarenean, aldiz, ez?

Aniztasunaren definizioa ez dago inon, ondorioz, borondatearen mende geratuko da horren defentsa edo sustapena garatzeko politiken norabidea. "Hizkuntza-aniztasuna" terminoaren eremu semantikoa zehazteke dago, eta ez dakigu Itun Konstituzionalak aipatzen dituen hizkuntzez ari den, Europako berezko hizkuntza guztiez edota European egun bizi diren hizkuntza guztiez. Gainera, aniztasuna definiturik ez egoteak hizkuntzen beharrei erantzutea zailtzen du, plangintza egokituak egiteko aukera ez du errazten eta, adibide moduan, Europako programetatik kanpo uzten ditu Europako berezko hizkuntzen bi herenak.

Azkenik, ohar gaitezen Itunak errespetatu hitza erabiltzen duela eta horrek ez duela inolako ondorio juridikorik eragiten. Itunean ez da jasotzen ez eta sustapenerako deia ere. Horrela, hizkuntza-aniztasunaren aldeko sustapen-politikak ezin dira ondorioztatu.

### ***I-9. artikulua***

#### **OINARRIZKO ESKUBIDEAK**

1. Batasunak II: zatia osatzen duen Oinarrizko Eskubideen Gutunean adierazitako eskubideak, askatasunak eta printzipioak onartzen ditu<sup>1</sup>.
2. Batasuna Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikiko zaio. Atxikimendu horrek ez ditu aldaraziko Konstituzioan zehazten diren Batasunaren eskumenak<sup>2</sup>.

### ***I-10. artikulua***

#### **BATASUNEKO HERRITARTASUNA**

2. Batasuneko herritarrak Konstituzioan ezarritako gozamen-dun eta betebeharren menpeko dira. Eskubide hauek dituzte:
  - d) Europako Parlamentuari eskea egiterakoan, Europako Arartekoarengana jotzerakoan eta Batasuneko erakunde eta organo aholku-emaileei zuzentzerakoan, Konstituzioaren

---

1. Oinarrizko Eskubideen Gutunaren azterketa 16. orrialdean agertzen da.

2. Gogora dezagun Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak agertzen duen artikulurik esanguratsuena:

*Article 14*

The enjoyment of the rights and freedoms set forth in this Convention shall be secured without discrimination on any ground such as sex, race, colour, language, religion, political or other opinion, national or social origin, association with a national minority, property, birth or other status.

hizkuntzetako bat erabiltzeko eskubidea dute, baita erantzuna hizkuntza horrexetan jasotzekoa ere.

## **Iruzkina**

Artikulu honetan herritarrei hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie, baina eskubide horien aitortza Konstituzioaren hizkuntzak erabiltzera mugatzen da. Hizkuntza erabiltzeko eskubidea ikuspegi aktibotik zein pasibotik bermatu beharra islatzen du, eta aurrerapausotzat har liteke, eskubideak Europako berezko hizkuntza guztiei erreferentzia egingo balie, batik bat.

### **3.2. II. Zatia. Batasuneko oinarrizko Eskubideen Gutuna**

Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak osatzen du Itun Konstituzionalaren II. zatia eta bertan jasotzen dira etorkizun baketsurako oinarriak. Sei ardatz nagusiren inguruan antolatu ditu Itunak eskubideak:

- DUINTASUNA
- ASKATASUNA
- BERDINTASUNA
- ELKARTASUNA
- HERRITARTASUNA
- JUSTIZIA

Lehenik eta behin azpimarratzekoa da hizkuntza-eskubideen aipurik ez dela agertzen artikulu batean ere. Jakin dakigu hizkuntza-eskubidea azken hamarkadetan garatzen hasi den terminoa dela, eta horren ondorioz, orain arte abian jarri diren itun edota deklarazio gehienetan ez dela horien aipu espliziturik agertzen.

Aniztasunari dagokionez, termino orokorretan egiten da. Ez da hizkuntzaren erabileraren aldeko zuzenbide subjektiborik eratzten, eta ez da aitortzen hizkuntza gutxiagotuetako askatasun-eremua. Are gehiago, izaera arrunt mugatua du, eta ez dago ulertzerik hizkuntza-eskubideen aitortpena, ez eta hizkuntza-aniztasunaren sustapenerako esku-hartze zehatzak ere.

Hizkuntza-eskubideak giza eskubideak dira, *Linguistic Human Rights*, eta horrela jaso beharko lituzke Itun Konstituzionalak; izan ere, Itun Konstituzionala aipatzen dituen ardatzekin erabat loturik agertzen da eskubideen bermea: duintasuna, berdintasuna, askatasuna, justizia, herritartasuna.

#### **A. Duintasuna**

Giza duintasuna urraezina dela dio Itun Konstituzionalak, baina duintasunik gabe bizi behar du bere hizkuntza-eskubideak urratuta dituenak. Egoera diglosikoan aurkitzen diren hizkuntzen hitzunek egoera latzak pairatu behar dituzte bizitzako une eta egoera askotan. Hona ekar genitzake Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urtero argitaratzen dituen txostenetan jasotako hainbat kexa, bai eta horien ondorioz herritarren duintasunari eragiten diotenak ere. Hizkuntza-eskubideak atal honetan ez jasotzeak herritar europar batzuek pairatu behar duten egoera latza betikotzea ekarriko du.

## B. Askatasuna

Askatasuna galtzen du bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea ukatua duen pertsonak. Ez du askatasun osoa bere adierazpide nagusia den hizkuntza erabiltzea edo ezagutzea eragotzita duen pertsonak. Askatasunetan lehena da norbera den bezalakoa agertzeko eskubidea eta hemen ere ez dira hizkuntza-eskubideak jaso. Pentsamendurako askatasuna edo adierazpen-askatasuna eskaintzen digu Itun Konstituzionalak. Hala ere, hizkuntza-eskubideak aitortzen ez baditu, nola egikaritu askatasunez pentsatzeko edota adierazteko eskubidea?

Askatasunaren barruan kokatzen dira enpresarako eskubidea, bai eta jabetza pribaturako eskubidea ere, betiere lege barruan eskuratutakoak badira. Oinarrizko eskubideez harago egin du Itunak, hizkuntza-eskubideei erreferentzia egin gabe.

## C. Berdintasuna

Itun Konstituzionalak dio bereizkeria oren kontra dagoela, horien artean hizkuntza dela eta eragindakoa, baina, testu berean, hiltun bakar batzuei bakarrik aitortzen die hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Ezin izango dugu ulertu Europak dakarkigun berdintasuna, ikusten dugunean, herri bereko batzuek aukera dutela haien hizkuntza erabiltzeko eta bitartean, euskaldunok, europarrok, bertakook aukerarik ez dugunean. Hizkuntza-komunitateei dagokienez ez da berdintasunaren aplikaziorik egiten, ez eta Europako berezko hizkuntza-komunitateen artekoa ere. Horrela, eskubideen printzipioetan aitortutako berdintasuna hogeitaz hizkuntza-komunitateri besterik ez dio eragingo, ez, ordea, European dauden berezko hizkuntza-komunitateei.

### **II-81. artikulua**

#### **BEREIZKERIARIK EZA**

Debekatuta dago bereizkeria oro, eta bereziki hauek: sexua, arraza, kolorea, herriko zein gizarteko jatorria, ezaugarri genetikokoak, **hizkuntza**, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina nahiz joera sexuala direla-eta eragindako bereizkeriak.

## **Iruzkina**

Hizkuntzak eragindako bereizkeria kontuan hartzea Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotakoarekin bat dator, baina ez da bestelako urratsik agertzen. Hau da, ez zaie aitortzen Europako hizkuntza-komunitateetako kideei, ez eta banakoaren ikuspegitik ere, hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Gogora dezagun, Eskubide Zibil eta Politikoen Itunak (1967)<sup>3</sup> 27. artikuluan eskubide indibidualak

3. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1967):

*En los Estados en que existan minorías étnicas, religiosas o lingüísticas no se negará a las personas que pertenezcan a dichas minorías el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros del grupo, a tener su propia vida cultural, a profesar y practicar su propia religión y emplear su propio idioma.*

*Dans les États où il existe des minorités ethniques, religieuses ou linguistiques, les personnes appartenant à ces minorités ne peuvent être privées du droit d'avoir, en commun avec les autres membres de leur groupe, leur propre vie culturelle, de professer et de pratiquer leur propre religion, ou d'employer leur propre langue.*



aitortzen zituela eta, modu negatiboan adierazita egonik ere, zalantzarik ez zegoela jarduera positiboko neurriak hartzea suposatzen ziela estatuei. Itun Konstituzionalean ez da horrelakorik agertzen, hortaz, nekez uler daiteke egiazko berdintasunaren parametroetan koka daitekeenik. Bestalde, arestian aipatu bezala, Itun Konstituzionalak Europako 20 hizkuntza besterik ez ditu aipatzen, hortaz, ez da esplizituki agertzen hizkuntza horietatik kanpoko besteei ere aplikatu dakiekeen artikulua.

### **II-82. artikulua**

#### **KULTURA-ANIZTASUNA, ERLIJIO-ANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA-ANIZTASUNA**

Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu.

### **Iruzkina**

I-3 artikuluekin lotutakoa dugu honako hau. Arestian esan bezala, Europar Batasunean estatu kontsultiboa duen erakunde batek bestelako proposamena egin bazuen ere, hain zuzen ere, hizkuntza-eskubide subjektiboak aitortzea eta hizkuntz gutxiagotuetao kideei eskubide kolektiboak aitortzea, azken idazkera hori besterik ez zen onartu. Horrela, kultura- eta erlijio-aniztasunari hizkuntza-aniztasuna erantsi zieten.

Hauxe litzateke Itun Konstituzionalak, Europar Batasunean izan diren Itunekin konparatuz gero, egiten duten bigarren eta azken berrikuntza.

### **D. Elkartasuna**

Elkartasunaren kontzeptua oso soziala da, gizartea orekatzeari begira sortutakoa, duenak ez duenari emanez oreka soziala bilatzen duena eta ez bakarrik arlo materialean. Elkartasuna askoz ere emankorragoa da materialak ez diren balioak direnean orekaren helburuak. Hizkuntza gutxiagotuak normalizatzeko helburua Europak bere egitea elkartasun-ekintza handia litzateke gizartea orekatzeaz gain, tentsio sozialak txikitzen baitira eta egoera baketsuak finkatzeko ezinbesteko jorrabidea delako. Elkartasuna praktika da eta ez araua, hizkuntza-eskubideak unibertsalki errespetatzeko aukera, elkartasuna praktikara eramateko aukera da eta Itun Konstituzionalak ez du jaso.

### **F. Herritartasuna**

Herritar sentimendua ez du Itun Konstituzional batek ematen. Euskaldunak nekez aurkituko du bere lekua Konstituzio honek ezartzen dion gerruntze estuan. Europar sentituko gara, eroso eta euskaldun oso sentitzen garen unean, bai eta Europako instituzioekin ere geure hizkuntza-eskubideak aitortuta eta bermatuta daudenean. Europarekiko atxikimendua are estuagoa izango da, izan bagarela dioen Itun Konstituzionalaren aurrean.

## **II-101. artikulua**

### **ADMINISTRAZIO ONA IZATEKO ESKUBIDEA**

4. Pertsona orok jo dezake Batasuneko erakundeetara Konstituzioaren hizkuntzetakoren batean, eta erantzuna ere hizkuntza horretan jaso beharko du.

## **Iruzkina**

I-10. artikuluekin lotutakoa. Txalotzekoa da eskubidearen alde aktiboa eta pasiboa bermatu beharra legez araututa egotea, baina hizkuntza-komunitate gutxiagotuetako kideei ez digu aukerarik ematen eskubide hori baliatzeko. Are gehiago, euskaldun batek Euskal Herrian berezkoa eta ofiziala ez den hizkuntza batean jo dezake Batasuneko erakundeetara eta erantzuna hizkuntza horretan jaso ahal izango du. Egoera horrek hautsi egiten du Itunak berak aldarrikatutako berdintasuna, bai eta herritartasuna ere.

## **G. Justizia**

Justiziaren eremuan akusatu orori bermatzen zaio defentsarako eskubideen errespetua. Justiziaren inguruan ez dator ezer hizkuntza-eskubideen inguruan; izan ere, Justizia Auzitegiko Prozedura Araudira jo beharko dugu horren inguruko arauak aztertzeko. Aipatu araudiaren 35. artikulua prozedurarako hizkuntzak ezartzen ditu. Hizkuntza horiek Itun Konstituzionalean agertzen diren berdinak dira. Gauzak horrela, Nazioarteko hainbat itunekin talka egiten du, besteak beste, Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunarekin eta Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Erromako Itunarekin. Horien arabera, eta babes judizial eraginkorra bermatzeko asmoz, herritar orok eskubidea dauka leporatzen zaizkion delituak hizkuntza ulergarrian hartzeko.

### **3.3. III. Zatia. Batasunaren politikak eta funtzionamendua**

Azken atal honetan, Itun Konstituzionalak Batasunaren politiken eta funtzionamenduaren inguruko araudia zehazten du. Horiek definitzeko lehen eta bigarren zatian agertutako balioak eta eskubideak izango ditu erreferente bakarra, eta horien arabera arautuko du funtzionamendua.

## **III-118. artikulua**

### **APLIKAZIO OROKORREKO XEDAPENAK**

Zati honetan jasotako politika eta jardunak zehaztu eta burutzerakoan, sexua, arraza edo jatorria, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen bereizkeria ororen kontra borrokatzen ahaleginduko da Batasuna

## **Iruzkina**

III-118. artikulua berrikuntza negatibo handia agertzen du; izan ere, hizkuntzarenagatik gertatutako bereizkeria ez du kontuan hartzen. Eskubideen Gutuneko II-82. artikulua, bereizkeriaren ingurukoak, hizkuntza arrazoi gisa agertzen bazuen ere, 118. artikuluan desagerrarazi egin dute. Horrela, Batasunaren funtzionamenduan ez da ekinbiderik gauzatuko hizkuntzarenagatik bereizkeria

saihesteko. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak 2. artikuluan jasotzen duena murriztu egiten du, hizkuntzari dagokionez batik bat.

### **III-124. artikulua**

#### **BEREIZKERIARIK EZA ETA HERRITARTASUNA**

1. Konstituzioaren gainerako xedapenen aurka joan gabe, eta Konstituzioan Batasunari esleitzen zaion eskumenen barruan, Kontseiluaren Europako lege edo esparru-lege batek hartu behar diren neurri guztiak hartuko ditu sexua, arraza edo jatorria, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen bereizkeria ororen kontra borrokatzeko. Kontseiluak aho batez hartuko du erabakia, Europako Parlamentuak onespena eman ondoren.

#### **Iruzkina**

Artikulu honetan ere aurrekoan hasitako bideari jarraitzen dio, alegia, hizkuntzarengatiko bereizkeria ez du aipatzen. Hartara, Europako legeek, *de facto*, ez dute neurririk hartuko hizkuntzaren ondorioz gertatutako bereizkerien kontra borrokatzeko.

### **III-128. artikulua**

Batasuneko herritar orok, I-10, artikuluko 2. paragrafoaren d) idatz-zatiari jarraituz, erakunde zein organoetara jotzerakoan eta hortik erantzuna jasotzerakoan, IV-448 artikuluko 1. paragrafoan jasota dauden hizkuntzetakoren bat erabiltzeko eskubidea izango du. Horri lotuta, I-10. Artikuluko 2. paragrafoaren d) idatz-zatian jasotako erakunde eta organoak honako hauek dira: I.19. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerroaldean eta I-30, I-31 eta I-32 artikuluetan aipatutakoak eta Europako Arartekoa.

#### **Iruzkina**

Itunaren aurreko bi zatietan ezarritako printzipioen ondorioz sortutako artikulua da, funtzionamenduari buruzkoa. Ezer berririk ez du agertzen, beraz, eta Itun Konstituzionalean zehaztutako hizkuntzak zein administrazio edo erakunderekin erabil daitezkeen jasotzen du, besterik ez.

### **III-433. artikulua**

Kontseiluak aho batez onartuko du Batasuneko erakundeen hizkuntza-araubidea ezarriko duen Europako erregelamendua, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuan aurreikusitakoaren kalterik gabe

#### **Iruzkina**

Hasieran esan bezala, hizkuntzaren araubideak 1958ko 1. araudia ezartzen du. Aipatu araudia Europako Elkarte Ekonomikoari dagokio eta bertan jaso egiten du Europako Kontseiluak aho batez onartuko duela. Itun Konstituzionalak prozedura

bera erabiliko du Batasuneko erakundeen hizkuntza-araudia ezartzean. Horren arabera, Itun Konstituzionalean jasotzen diren hizkuntzak besterik ez direla kontuan hartuko aurrez ikus dezakegu, horixe gertatu baita 1958ko araudia aplikatu izan denean. Akaso, hizkuntza-araubidea ezartzeko erregelamendua zehazten dutenean zenbait funtziotarako bizpahiru hizkuntza aukera litzakete. Hizkuntza gutxiagotuak, dena den, etorkizunean gerta daitezkeen hizkuntzen arteko lehia horietatik at egongo dira.

### **III-448. artikulua.**

#### **BENETAKO TESTUAK ETA ITZULPENAK**

1. Itun hau ale bakar batean idatzi da hurrengo hizkuntzetan: alemanez, txekieraz, danieraz, eslovakeraz, eslovenieraz, gaztelaniaz, estonieraz, suomieraz, frantsesez, grekoz, hungarieraz, ingelesez, irlandera, italieraz, letonieraz, lituanieraz, malteraz, nederlandera, polonieraz, portugesez eta suedieraz.
2. Itun hau estatu kideek zehazten dituzten beste hizkuntzetara itzuli ahal izango da, baldin eta estatu horietako konstituzio-ordenamenduaren arabera maila ofizial badute lurralde osoan edo zati batean. Kasuan kasuko estatu kideak itzulpen horien kopia ziurtatua bidaliko du, Kontseiluaren artxiboetan gordezteko.

#### **Iruzkina**

448.1 artikuluan zehaztutako hizkuntzak dira, beraz, Itun Konstituzionalaren hizkuntzak eta horien arabera baliau ahal izango dira Itunaren hainbat artikuluk aitortutako eskubideak. Irlandera agertzen da; izan ere, Itunak jasotzen dituen eskubideak baliatzeko aukera eskaintzen zaie irlandera hitzunei, ez, ordea, luxenburgera mintzo direnei. Artikulu honetan euskara ez egotearen ondorioz urratu egingo zaizkigu sistematikoki hizkuntza-eskubideak, euskara ez dute kontuan hartuko hizkuntzen inguruko programetan...

Bigarren puntuari dagokionez, euskarazko bertsio ofiziala lortu dugu, baina kontuan izan behar dugu beste hizkuntza-komunitate batzuen egoeran oinarrituz, berdintasunari ez zaiola erreparatzen; izan ere, estatuen esku uzten da Ituna beste hizkuntzetara itzultzeko aukera, eta nahitaezko baldintza da hizkuntza gutxiagotuak status ofiziala izatea estatu horretan. Hortaz, ez da Itunaren bertsiorik izango, besteak beste, britanieraz, korsikeraz...

#### **4. Ondorioak**

Aurreko atalean egindako azterketan oinarriturik hona hemen Itun Konstituzionalak euskarari, euskal hiztunoi eta euskararen normalizazioari eragin diezaiekeena:

- Hizkuntza-eskubideak ez jasotzeak horien existentzia bera ere ukatzen du.
- Aniztasuna definiturik ez egoteak hizkuntzen beharrei erantzutea zailtzen du, plangintza egokituak egiteko aukera ez du errazten.

- Herritarrek zeinek bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea Europako 20 hizkuntzatarara mugatzen du, euskaldunon hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa legez arautuz.
- Hizkuntzari status ofiziala ez esleitzeak normalizazioa bera galga dezake; izan ere, zuzenbide komunitarioak Euskal Herrian saltzen diren produktuen etiketak euskaraz egoteko balizko agindua ezinezko egingo bailuke. Halaber, euskara hizkuntzen ikaskuntzaren programa guztietatik kanpo utziko luke. Hala ere, arras paradoxikoa da horietako programa batzuetan Batasuneko Estatuetan ez berezko ez ofizialak diren hizkuntzak kontuan hartzen direla, islandiera eta norvegiera esaterako.

### **5. Azken hilabeteotako aldaketak: Moratinosen memoranduma, 2005eko ekaineko erabakia.**

2004ko abenduaren 13an Espainiako Gobernuak eskaera egin zion Europar Batasunari —16220/04 dokumentua, Moratinos jaunak aurkeztua— Estatuan status ofiziala duten beste hizkuntzei nolabaiteko ofizialtasuna aitortzeko. Aipatu dokumentuan, eta ofizialtasun maila horretan oinarriturik, honakoa eskatzen zen:

- Herritarrek hizkuntza horiek idatzizko komunikazioetan erabili ahal izatea.
- Hizkuntza horiek Europako Parlamentuan eta Eskualdeetako Batzordean erabili ahal izatea, aldez aurretik eskatuz gero.
- Elkarrekin erabakitzekeo prozeduraren bidez onartutako ekintza juridikoak hizkuntza horietan ere argitaratu ahal izatea.

2005eko ekainaren 13an Europar Batasuneko 25 estatuak erabakitakoaren arabera, ez zegoen euskara, galiziera eta katalanari status ofiziala esleitzerik, 1/1958 Araudiaren aurka zetorrelako. Lehen esan bezala, status ofiziala lortu ahal izateko, Itun Konstituzionalak hizkuntzak horiek propio jaso beharko zituen 448. artikuluan. Hori horrela izan ez zenez, antzua zen izaera ofiziala eskatzea.

Hartara, ofizialtasuna esleitu ez arren, ekainaren 13ko erabakiak eskaeraren zenbait puntu jaso zituen:

- Elkarrekin erabakitzekeo prozeduraren bidez onartutako erabakien itzulpena bidali ahal izango dio estatu bateko gobernuak Europako Parlamentuari edo Kontseiluari. Kontseiluak itzulpena gorde egingo du, bai eta kopia bat helarazi ere norbaitek eskatuz gero. Hala ere, **itzulpenek ez dute balio juridikorik izanen.**
- Gobernuak hizkuntza horiek erabili ahal izango ditu, **interpretazio pasiboa besterik ez da izanen**, saioretan, baldin eta aldez aurretik eskatzen badu.
- Herritarrek hizkuntza horietako batean helarazi ahal izango ditu idatziak, baina lehenik Estatuak erabakitako erakundeak jasoko du hizkuntza ofizialera itzultzeko.

Ohar gaitezkeenez erabaki horrekin ez zaie irtenbide egoki eta orekaturik ematen artikulua honetako 4. puntuan azaldutako ondorio edo gabeziei.

Hortaz, herritarrek ez dute euskarazko harreman zuzenik izango Europako instituzioekin. Europar Batasuneko erakundeei euskaraz idatzitako idazkiak ezingo zaizkie zuzenean helarazi. Espainiak euskarazko idazkiak bideratzeko erakunde bat sortu du, bertan idazkiaren gaztelaniazko itzulpena egingo dute eta, itzulitakoan, ele bietan dagoen idazki hori, dagokion Europako erakundeari helaraziko zaio.

Bestalde, Europar Batasunak herritarren arteko bereizkeria berri bat jarriko du abian; izan ere, Europako herritar batzuek aukera izango dute administrazioei euskaraz zuzentzeko, eta beste herritar batzuek, haien hizkuntza propioa eta lurraldeko berezkoa izanik ere, Iparraldean, ez zaie eskubide hori aitortuko. Esan gabe doa Nafarroako herritar gehienek ez dakitela EBra euskaraz jotzeko aukera izanen duten, Estatuaren esku baitago.

2005eko azaroaren 16an euskara, galiziera eta katalana erabili omen ziren lehen aldiz Europar Batasuneko instituzioetan. Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik helarazitako mezua ekarri nahiko nuke amaitzeko: “Euskara Europako erakundeetan erabiltzea da bermerik sendoena euskarak bizirik jarrai dezan”. Ez dut uste nik euskarak bizirik jarrai dezan, Europako erakundeetan erabiltzea bermea denik, aitzitik, hizkuntzak bizirik jarrai dezan normalizazioa behar du eta hori Euskal Herrian bertan kudeatu beharrekoa da. Bruselan, akaso, galga batzuk izan ditzakegu normalizazioaren eremu batzuetan, produktuen etiketetan esaterako; baina ez digu mugarik jartzen euskararen lurraldean hizkuntzaren normalizazioaren aldeko politika eraginkorrak abian jartzeko. Gainera, Europako instituzioetan euskara erabiltzeko aukera egonik ere, ba al dugu euskaraz mintzo den europarlamentariorik?

## **Bibliografia**

- Agirreazkuenaga, I. (2004): *Diversidad y convivencia lingüística*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Bilbao, P. (2005): “¿Unidos en qué diversidad?” in *BATZUEN ARTEAN ¿La uropa, de quién?*, Txalaparta, Tafalla.
- Ciemen (2002): *El dret a la diversitat lingüística*, Mediterrània, Bartzelona
- Corretja i Torrens, M. (1995): *L'acció europea per a la protecció dels drets lingüístics*, Generalitat de Catalunya, Bartzelona.
- Ruíz, E. (2001): “The Protection of Linguistic Minorities” in *International Journal on Multicultural Subjects*, UNESCO (argitaratu gabeko txostena)
- Sanmarti, J. M. (1996): *Las Políticas Lingüísticas y Las Lenguas Minoritarias en el Proceso de Construcción de Europa*, IVAP, Gasteiz.
- Siguan, M. (2005): *La Europa de las lenguas*, Alianza, Bartzelona.